
Dinamizatzailea aniztasunari begira kontuan hartzeko:

- Lehenengo ariketan denok parte hartzeko pentsatuta dago, oso ikusgarria delako eta gaitasun linguistiko gutxiko ikasleek errez pate har dezakete.
- Bigaren ariketak aldiz, kontzeptuen gogorapena eskatzen zaie geroago lana egiteko, honela guztien parte hartu ahal izango dute.
- Dinamizatzaileak kontuan izango du , ikasle batzuk gai izango direla parte hartzeko ikaskideen azalpenak entzun ondoren.
- Ikasleek era ezberdinak erabiltzen dituzte azalpenak emateko, hau da, batzuk azalpenak erraztasunez sortzen dituzte eta beste batzuk ordea, seinlatu behar dute mapan bere pentsamendua argitzeko.
- Batzuen kasuan, erantzuna irudian seinlatzearekin nahikoa izan daiteke.

2. JARDUERA

JARRAIBIDEAK

- Jarduera honetan hausnarketa bat eskatzen zaie klimari buruz. Horretarako, irla bat kokatu behar dute mapan eta beste kontzeptu batzuekin lotu edo harremanatu beharko dituzte. Erantzuna beti argudioekin justifikatu beharko dute.
- Moderatzailea adi egongo da guztien iritziak taldean entzun eta baloratzen daitezen.
- Hemen bakarrik idatziko dute taldeak adostu duen erantzuna, denona.
- Aniztasunari begira, aurreko jardueran bezala, klima motak eta euren ezaugarriak gogoratuko dituzte, honela, , guztiek parte ahal izango dute.

Ikaslearen fitxa

- Margotu ezazue ezagutzen dituzuen 5 paraleloak gorri eta Greenwich meridianoa berdez. Topatu Europako irla bat (20º mendebaldean eta 65 º iparraldean)
- Zein motako klima dagoen irla honetan hotza, beroa edo epela? Zergatik? Elkarrizketaren ondorioa idatzi ezazue.

.....
.....
.....

3. JARDUERA

JARRAIBIDEAK

- Jarduera honetan beste hausnarketa bat eskatzen zaie. Paisaiak, bizimoduen baldintzak, klimaren ezaugarriak, eta bururatuko zaiena konparatuko dute. Horretarako era ezberdinak erabil ditzakete. Kasu honetan altuz ezaugarriak esan ditugu eta dinamizatazaileak bultzatuko du lexiko egokiena erabiltzen.
- Era honetako ariketa grafikoagoa denez, errazagoa bultzatu ahal da ikasle batzuen partaidetza, hizkuntzarekin zailtasunak dituztenak, besteek esandakoa errepikatzerakoan hiztegi egokia ikasten ari dira.
- Elkarrizketa amaitu eta gero, bakoitzak bere erantzuna idatziko du taldean sortutako argudioak erabiliz.
- Dinamizatazailea adi egongo da beharrezko laguntza antolatzeko.

Ikasleen fitxa



Leku ezberdinetako argazkiak dira.
Zer dago eta zer ez dago bakoitzean? Zuek non bizi nahi zenukete? Zergatik? Elkarrizketaren ondorioa idatzi ezazue.

Elkarrizketaren ondorioa:

.....

.....

.....

.....

.....

IRRATSAIOAK PROIEKTUA TALDE ELKARRERAGILEN BIDEZ (LH 4-5-6)

- **Talde elkarreragileak Pedro M^a Otañon**
- **Irrati proiektuaren deskripzioa**
 - **Helburuak**
 - **Zerginak eta antolaketa**
 - **Taldeen jarduera**
- **Taldeen jarduera**
- **Lantzen diren konpetentziak**

1- Talde elkarreragileak Pedro M^a Otañon

Ikastetxean talde elkarreragileak sistematizatuta daude haur eta lehen hezkuntza osoan. Ikastetxeko maila guztietan ikasleek bi saio egiten dituzte astero talde elkarreragiletan eta honetaz gain, 4, 5, 6 urteko ikasleek beste saio bat aurrera eramateko. Ikastetxeko lan dinamika honi esker ikasleak oso trebatuta daude talde lana egiten eta elkar laguntzen

Talde elkarreragileak antolatzeko gela bakoitzean bost edo sei neska-mutuez osaturiko talde heterogeneoak sortzen dira. Taldeen ikasle kopurua gelako ezaugarrien arabera izaten da. Talde txiki bakoitza heldu baten ardurapean dago elkar laguntzeko interakzioak bultzatzeko. Heldu hauek irakasleak, senitartekoak, praktiketako ikasleak, eskolako beste langileak, ikasle ohiak edo, beste motatako boluntarioak izaten dira.

Irakasleek aurretik jarduerak prestatzen dituzte eta haien berri ematen diete boluntarioei koordinazioaren bitartez.

Astean behin planifikatutako ordutegi zehatz batean ordubeteko saioak egiten dira talde elkarreragiletan ondoko arlo eta mailetan:

Haur hezkuntza

Irakurketa
Esperimentuak

Lehen hezkuntza

Matematika Lehen hezkuntza osoaren zehar jarduerak lau arlo hauen inguruan antolatzen dira:

- problemak ebatzi
- problemak sortu irizpide desberdinen arabera
- zenbakikuntza
- logika.

Geletan 5 edo 6 ikasleko lau talde heterogeneoak antolatzen dira eta talde bakoitzean 25 minututako jarduera bat burutzen dute, errotazio bat eginez. Saio bakoitzean bi jarduera egiten dute, aste batean bi arlo eta hurrengo astean beste biak, honela bi astetan lau arloko jarduerak burutzen dituzte ikasle guztiak.

PROBLEMAK EBATZI	ZENBAKIKUNTZA
PROBLEMAK SORTU IRIZPIDE EZBERDINEN ARABERA	LOGIKA

Jarduera hauek diseinatzeko liburu ezberdinak erabiltzen dira: Pereda - Baga Biga ...eta aurreko urteetan ekoiztutako materialak.

Euskara eta Lengua arlo hauen inguruan antolatzen dira:

- Irakurketa
- Ulermena,
- Ahozko adierazmena
- Idazketa
- Denbora pasak.

Ahozko adierazmena lantzeko tertulia literarioak egiten dira. Euskera egiten da lehen zikloan eta gaztelania bigarren eta hirugarren zikloetan.

Antolaketa matematikan erabiltzen den antolaketa bera da, talde bakoitzean 25 minututako jarduera bat burutzen dute, errotazio bat eginez. Saio bakoitzean bi jarduera egiten dute, aste batean bi arlo eta hurrengo astean beste biak

IRAKURKETA –ULERMENA	↑	AHOZKO ADIERAZMENA	↑
DENBORA PASAK	↓	IDAZKETA: Testu laburrak	↓

Jarduerak diseinatzeko liburu ezberdinak erabiltzen dira eta aurreko urteetan ekoiztutako materialak.

Irrati proiektua: 4,5, 6 mailetan.

Proiektu hau egiteko astean behin saio bat egiten dute elkarrekin 4, 5,6 mailetako ikasle guztiak. Ikasleak 5-6 ikasleko 6 talde heterogeneotan banatzen dira. Talde guzti hauek helburu bera daukate: irratsaio oso bat prestatzea. Talde bakoitzak zenbait saio ematen du bere eginkizun hau burutzeko, normalean zortzi izaten dira baina gehiago ere izan daitezke. Talde hauek finkoak dira, ez dago jardueren errotaziorik.

2- Irrati proiektuaren deskripzioa

Helburuak

- Gelako lana kanporatzea
- Herriko Hizkuntza sustatzea
- Herriko bizitzan parte hartzea
- Informazio iturri ezberdinak erabiltzen trebatzea
- Iturri ezberdinetatik ateratako Informazioa prozesatzea eta aplikatzea

- Irakurketa esanguratsuak egitea
- Geletan landuta dituzten testuak (errezetak, elkarrizketak, albisteak, bertsoak...) ekoiztea
- Ikasleen autonomia zehaztea
- Talde lanaren bitartez lortzen den lan kalitatea ikas ditzaten.

Zeregina eta Antolaketa

Ikasleek bi irratsaio prestatu behar dituzte ikasturtean zehar. Hau prestatzeko gutxienez ordubeteko 8 saio burutuko dituzte talde elkarreragiletan. Irratsaio hauek eskolatik igortzen dira eta herri osoarentzat ematen dira. Irratsaio bakoitzak ondoko atal hauek izaten ditu:

- 1- Literatur txokoa
- 2- Albisteak: munduan gertatzen diren gauza oso nabarmenak eta batez ere, herriko eta eskolako gauzak
- 3- Umorea : Txisteak eta hiztegi eroa
- 4- Denok sukaldari; errezetak egiten dira, askeak, taldekideen arabera, horrela kultura ezberdinetakoak egiten dituzte
- 5- Kantu eskeiniak
- 6- Lehiaketa: galdera esanguratsuak, edukineei lotuta. Bat esaera zahar baten inguruan izan behar da
- 7- Elkarrizketa edo debatea, pertsonaia hobeto ezagutzeko
- 8- Txikien txokoa: haur hezkuntzakoek prestatutako zerbait. Lehiaketan asko parte hartzen dute

Gelan antolatzen diren talde guztiek prestatu behar dituzte atal guzti hauek aurretiaz emandako gidoi bati jarraituz. Talde guztietan heldu bat dago taldea dinamizatzeko. Dinamizatzaile hauek ez dira egoten talde bakoitzarekin aste bat baino gehiago. Ikasle taldea finkoa da eta dinamizatzaileak astero aldatuz doaz, talde guztietatik pasatzen dira proiektua garatzen den ahala. Ikasleek badakite heldu bat egongo dela beti beraien talde lanean laguntzen eta astez aste pertsona hori ezberdina izango dela. Honela jabetzen dira lan arduraren beraiena dela. Dinamizatzaileak ikastetxeko irakasleak eta boluntarioak dira. Boluntarioen artean herriko euskaldun zaharrak egoten dira proiektuaren helburutariko batean laguntzeko euskeraren erabilera aberastekoa (esamoldeak, hiztegia, hizkuntza giroak...)

Atal guzti hauetan ekoiztu behar dituzten proiektuak (errezeta, elkarrizketa...) ez dira ikasleentzako proiektu berriak, guzti guztiak geletan landu dira ikasturtetan zehar.

Saioak liburutegian egiten dira, inguruan daukaten material guztia erabili ahal izateko.

TALDEEN JARDUERA

JARRAIBIDEAK

Ikasleen zeregina

- 8 puntu guztiak talde guztietan prestatuko dituzte
- Talde bakoitzean bi ikasle arduradun egongo dira (materiala jasotzeko, idazkaria eta koordinatzaile lanak egiteko...)
- Atal bakoitzari buruz daukaten ezagutzen duten informazio guztia batuko dute (geletakoa, liburutegian dagoena...)
- Lortu ahal duten informazio guztia proposatuko dute
- Lana antolatuko dute (astez aste). Atal bakoitzeko lana egiteko ardurak banatzen dira bikoteka, hirukoteka eta egina dagoenean taldean aurkezten dute, ekarpenak jasotzen dituzte eta edukia adosten dute
- Talde bakoitzak batutako eta sortutako informazio guztia karpeta batean jasoko da. Talde bakoitzean bi ikasle izango dira lan arduradunak
- Ikasle bakoitzak karpeta bat edukiko du prestatzen den material guztiarekin
- Karpetak ikastetxean gelditzen dira proiektua burutzen duten bitartean eta irratsaioa egin arte
- Atal guztiak burututa daudenean guztiek batera irratsaioa diseinatuko dute: ordena, ardurak, nor kontatuko du zer, edo irakurri, esataria nor izango den
- Esatari lana antolatuko dute irratsaiko atalak era dinamikoa lotuz (ahozko lana da)
- Lehenengo irratsaiorako esatari lana oso ondo deskribatuta eramango dute, aholkuak eta iradokizunak barne
Bigarren saiorko ideien gidoia besterik ez dute eramango

Ikasleen fitxak

1-Proiekturako gidoia

1-Literatur txokoa:

Ipuin laburrak/kondaira motzak
Olerkiak
Irakurritako liburu baten erreseina
Deskribapenak
Antzerkitxoak
Bertsoak
Idazle, bertsolari...bizitza, kontakizuna

Hautatik 2 egingo dira irratsaio bakoitzean. Ezin da errepikatu

2- Albisteak

Herrikoak, eskolakoak, herriko eta eskolako agenda, Mundu mailako berri garrantzitsuak

3- Umorea

Txiste pare bat, hiztegi eroa edo kontakizun farregarriren bat

4- Denok sukaldari

Librea

5- Kantu eskainiak

6- Lehiaketa

- Galdera bat beti esaera zahar baten inguruan
- Aurrez kontatukoari buruz beste galderaren bat
- Gehienez 5 galdera

7- Elkarrizketa edo debatea

Txandatur

8-Txikien txokoa

Txikiek prestatutako zerbaite jasoko dute

2- Talde lana antolatzeko

IRRATI SAIOA

GIDA	DUTENA	TXANDA	EGITEKOAK
Literatur txokoa			
Albisteak			
Umorea			
Denok sukaldari			
Kantu eskainiak			
Lehiaketa			
Elkarrizketa edo debatea			
Txikien txokoa			

Dinamizatzailen zeregina

- Non dauden galdetu: egindakoaz informazioa eskatu eta saio horretan egitekoaz ere galdetu
- Ikasleen arteko eztabaidetan lagundu
- Guztien partaidetza bultzatu
- Beraien arteko ez adostasunetatik ateratzen lagundu
- Antolaketan lagundu
- Ideiak eman
- Bateratze lana egiten dutenean guztien ekarpenak entzutea bermatu eta guztiek ekarpenak ematen bultzatu
- Esatari lana egiten dutenean euskera kolokiala, hitz jokoak, giroak, euskerari bizitasuna ematen dioten zera horiek erabiltzen lagundu, ideiak eman...
- Ikasleen artean berdinen arteko tutorizazioa bultzatzea

Taldean hausnarketarako

Irratsaio bakoitza amaitu eta gero ondoko ebaluaketa egiten dute. Galdeketa gelako arauetan oinarrituta dago

Data:

Izena:.....

GEHIEN KOSTA ZAIGUNA

➤ Besteek esandakoa entzutea/ txanda itxarotea	
➤ Eginbeharrekoa adostea	
➤ Beharreko materiala biltzea	
➤ Tokatu zaigun lana betetzea	
.....	

--	--

ZERTAN MOLDATU GARA HOBEKIEN

.....	
.....	

ZAILTASUN BATEN AURREAN, NORK EMAN DITU IRTENBIDEAK?

Zailtasuna:

3- Proiektua hau egiterakoan lantzen diren konpetentziak

Ikasten Ikasteko gaitasuna

- Zer dakien, zer ikasi behar den proiektu bat aurrera ateratzeko
- Nola kudeatzen eta kontrolatzen diren modu eraginkorren ikaskuntza-prozesuak helburu pertsonalak lortzeko
- Jarduerak eta denbora modu efektiboan planifikatzea eta antolatzea
- Informazioa lortzeko, aukeratzeko eta tratatzeko baliabideak eta iturriak ezberdinak erabiltzea
- Eskura duten informazioa jarrera kritikoz eta zuhurtasunez baloratzea
- Egoera edo arazoei konponbidea emateko dauden aukerak identifikatzea eta baliatzea
- Eskura dagoen informazioa aintzat hartuta, askotariko estrategiak eta metodoak erabiltzea erabakiak modu arrazionalen eta ikuspegi kritikoz hartzeko.

Hizkuntza komunikaziorako gaitasunak

- Gizarte- eta kultura-testuinguruetako komunikazio-egoerei egokiak zaizkien diskurtsoak adieraztea eta
- Hizkuntza-sistemaren funtzionamendu-arauak eta hizkuntza-interakzio egokiak izateko estrategiak ezagutzea eta behar bezala aplikatzea.
- Hizkuntzarekin lotutako gizarte-ohiturak, hizkuntzaren kultura-balio eta –alderdiak, eta hizkuntzak testuinguruaren eta komunikazio-asmoaren arabera har ditzakeen aldaerak
- Norberarenak ez diren iritziak sentikortasunez eta ikuspegi kritikoz entzutea, aztertzea eta aintzat hartzea

- Norberaren ideiak eta emozioak funtsean eta formaz egoki adieraztea

Informazioko eta komunikazioko teknologiak erabiltzea

- Informazioa antolatzeke eta prozesatzeko
- Ematen duten informazioa aprobetxatzeko eta ikuspegi kritikoz aztertzeke, beste pertsona batzuekin lan eginez
- Ingurune sozialari buruzko ezagutza eta harremana handitzea
- Aurretik ezarritako helburuak betetzeke baliatu, ikasketen, lanaren eta aisialdiaren esparruan.

Giza eta arte kulturarako gaitasuna

- kultura-adierazpenak balioestea eta horiez gozatzea
- Ekimena, irudimena eta sormena baliatzea arte-kodeen bidez adierazteke
- Herriko hizkuntza kolokialaren bitartez adierazitako ideiek, bizipenek eta sentimenduek azaleratutako sormen inplizitua balioestea
- Kultura-adierazpenekiko, norberaren ahalmen estetiko eta sortzailea lantzeke gogoia eta borondatea izatea
- Interesa adieraztea norberaren komunitateke bizitza kulturalean parte hartzeke

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

- Helburuak finkatzea eta proiektuak planifikatzea eta aurrera eramatea.
- Aurretiazko planteamenduak berregitea, ideia berriak sortzea eta, konponbideak aurkitzea eta aplikatzea.
- Aukerak eta mugak aztertzea, proiektuen garapen faseak ezagutzea, erabakiak hartzea, egindakoa ebaluatzea eta nor bere burua ebaluatzea, konklusioak ateratzea eta hobetzeke aukerak balioztatzea.
- Helburuak identifikatzeko eta lortzeke bidea errazteke eta abiatutako lanak arrakastaz bukatzeke motibazioari ekitea
- Planteamendu malguak egitea, eta aldaketak aukera moduan ikustea, aldaketa horietara ikuspegi kritikoz eta molde eraikitzailez egokitzea, eta arazoei aurre egitea eta konponbideak topatzea
- Gainerako pertsonen lekuan jartzen jakitea, gainerako pertsonen ideiak balioestea, elkarrizketatzea eta negoziatzea.
- Norberak hartutako erabakiak behar bezala jakinarazteke eta lankidetzagiroan eta malgutasunez lan egitea.
- Norberarentzat eta gainerako pertsonentzat kaltegarriak diren gogo-aldarteak identifikatzea eta menderatzea
- Norberaren jokabideak antolatzea, ahaleginari eustea eta norberak asmo dituen helburuak betetzean lortzen den asebetetzea atzeratzea
- Sormenez, konfiantzaz, arduraz eta sen kritikoz sortzea, abian jartzea, garatzea eta ebaluatzea proiektu kolektiboa.

NATUR ZIENTZIAK (DBH1)

- **Saioaren testuingurua**
- **Saioaren deskripzioa**

Materiaren egoerak eta nahasteak

- **1 Jarduera: materiaren egoerak**
 - **2 Jarduera: nahasteak**
 - **3 Jarduera: disoluzioen kozentrazioa**
 - **4 Jarduera: izaki bizidunen antolaera eta material landuak**
- **Eranskina: ikasleen fitxak**
 - **Natur zientzietan talde elkarreragileen bidez lantzen diren gaitasunak**

Saioaren Testuingurua

Natur zientzia arloan testu liburua erabiltzen da oinarri gisa. Gaiak aurrera eramateko batez ere tertulia dialogikoa eta talde elkarreragileak erabiltzen erabiltzen dira. Hauek gaiaren sakontasunaren arabera Irakasleak gaiaren sakontasunaren arabera erabakiko du zenbat saioetan egingo duten tertulia dialogiko eta talde elkarreragileak. Orokorrean gai bakoitzeko bi tertulia egiten dira eta talde elkarreragileak astero behin. Aurkezten den saio honetan

Saioaren deskripzioa

Gaia: Materiaren egoerak eta nahasteak

Saioa hau gai honetan landu diren kontzeptuak argitzeko eta barneratzeko planteiatzen da.

Ordubeteko saioa proposatzen da. Lau talde heterogeneoak antolatuko dira gelako gune ezberdinetan eta talde bakoitzean jarduera ezberdinak burutuko dituzte. 12 minutu inguru edukiko dute gune bakoitzean eta bertan pertsona heldu bat egongo da saio osoan zehar gune horretako lana dinamizatzen. Ikasle guztiak gune guztietatik pasatuko dira. Ondokoak dira jarduera bakoitzean landuko diren kontzeptuak:

- Materiaren hiru egoerak bereiztea eguneroko bizitzan erabiltzen dugun inguru batean eta egoera bakoitzaren propietate nagusiak erlazionatzea. Horrez gain beroa edo energia lotzea materia egoera aldaketa bakoitzarekin.
- Nahaste motak bereiztea eta mota bakoitza zein banantze teknikarekin banatu dezaketen adieraztea, baita teknika bakoitzean erabiltzen den materiala ezagutzea ere.
- Disoluzioak osatzen dituzten osagaiak lantzeaz aparte, kontzentrazioarekin lotutako buruketak ebaztea da honen helburua.
- Alde batetik elementu kimiko gutxi batzuen garrantzia balioestea eta izaki bizidunen osaeran parte hartzen duten molekula bereizgarriak identifikatzea. Bestalde, material desberdinen birziklapena nola egiten den azaltzea eta ezagutzen dituzten material berriak izendatzea.

Gune bakoitzean proposatzen diren jarduerak gelan erabiltzen den testu liburutik (giltza) eta Oxford argitaletxeko natur zientziako liburutik hartutakoak dira.

1. Jarduera/ Gune 1

MATERIAREN EGOERAK landuko dira.

- Ikasle bakoitzak aurrean izango du fitxa bat 3 ariketekin.
- Ikasleek ariketak irakurriko dituzte ozenki eta denen artean erantzun zuzena adostuko dute. Erantzuna beti justifikatuko dute, nahiz eta ariketan esplizituki ez agertu.
- Behin adostuta, ikasle bakoitzak bere orrian idatziko ditu erantzunak.

- Moderatzaileak erantzunen zergatiak eskatuko ditu azalpenak ahalik eta desberdinak izan daitezen bultzatuz . Honela ikasle guztiek ulertzeko eta ikasteko aukera gehiago izango dute. Guztiek ulertzen duten ala ez erreparatuko du eta estrategia ezberdinak erabiliko ditu guztien partaidetza bermatzeko. Idazteko momentuan dinamizatzailea adi ibiliko da ondo ez dakitenenei edo motel dabilzaneiei beharreko laguntzak eskeintzeko

Ikaslearen fitxa

1- Osa itzazue beheko esaldiak eta ondoren (ahoz), Irudian agertzen diren materialak sailkatu zein egoeran dauden kontuan hartuz.

Materia hiru egoeratan agertzen da: egoera..... ,
egoera..... eta egoera.....



2. Sailka itzazue ondorengo ezaugarriak materiaren hiru egoeretako zeini dagokien taula betez:

Bolumen iraunkorra- forma iraunkorra- forma aldakorra- atomoak eta molekulek espazio osoa betetzen dute- bolumen aldakorra- jariakorrak dira- gogortasuna- zailtasuna- biskositatea- atomo eta molekulek oso kohesionaturik- konprimagarritasuna- beren molekulen kokapen finkoak betetzen dituzte espazioan- hedagarritasuna.

3. Denon artean adostu galdera honen erantzuna:

Substantzia bati beroa emanaz gero zein egoeratik zein egoerara pasatu daiteke. Eta hoztuz gero?

Gelako aniztasuna kontutan hartuta :

- Guztien partaidetza bultzatzeko estrategia bat izan daiteke erantzunak txandaka esatea (adibidez bigarren ariketan), baina kasu honetan ere bakarrik idatziko dituzte guztiak ados jartzen direnean.
- Dinamizatzailleak adi egongo da zailtasun gehiago dituzten ikasleen parte hartzea errazteko. Adibidez, lehenengo eta bigarren ariketetan, ikasle batzuk gai izan daitezke parte hartzeko ikaskideen azalpenak entzun ondoren eta beste batzuen kasuan, erantzuna irudian seinalatzearekin nahikoa izan daiteke.
- Lehenengo ariketan irudiaren kopia kolorez izatea edo tamaina handikoa baliagarria izan daiteke zenbait ikasleentzako.
- Bigarren ariketan, beharrianak ikusi ondoren, agian ikasle batzuei bakarrik adibide batzuk idaztea eskatu ahal zaie.

2 Jarduera / Gune

NAHASTEAK landuko dira.

- Ikasleak, planteatzen diren ariketak irakurtzeko minutu bat izango dute eta bertan agertzen diren terminoak azaldu beharko dituzte ariketaren erantzuna eman aurretik. Ondoren, erantzuna adostuko dute eta bakoitzak bere orrian markatuko du edo idatzi horrela egin behar denean.
- Moderatzaileak kontzeptuen azalpenak denon artean osatzen konbidatuko ditu denei euren iritziak ematera animatuz. Adi egongo da guztien iritziak taldean entzun eta eta baloratzen daitezen.

Ikaslearen fitxa

1. Begira itzazue irudiak eta esan zein den nahaste homogenea eta zein heterogeneoa.



fruitu entsalada




fruitu zukua

2. Nola definitu dezakezue nahaste bakoitza?

3. Erlazionatu argazki bakoitza dagokion banatze teknikarekin:

- a) Dekantazioa
- b) Baheketa
- c) Imantazioa
- d) Iragazketa



Zein motatako substantziak banantzen ditu metodo bakoitzak?

Dekantazioa:

Baheketa:

Imantazioa:

Iragazketa:

- Gune honetan dinamizatzailleak guztien partaidetza bultzatzeko orduan kontuan hartu dezake:
 - ariketak testu gutxirekin idazteak irakurtzeko zailtasunak dituztenen partaidetza errazten du ulertuko dutelako zer eskatzen zaien.
 - era honetako ariketa grafikoagoetan errazago bultzatu ahal dela ikasle batzuen partaidetza, hizkuntza ez baita traba izango.


3 **Jarduera/ gune 3**

DISOLUZIOEN KONTZENTRAZIOA landuko da.

- Gune honetan, kontzeptuak lantzeaz gain planteatutako problemak ebaztu beharko dituzte ikasleek. Ariketa bakoitza ozen irakurriko dute , erantzuna prestatuko dute denen artean eta gero bakoitzak bere orrian idatziko du.
- Dinamizatzaillea guztiek zerbait esatera animatuko ditu, adibidez, lehenengo ariketaren definizioan parte hartu ez dutenei (horrela gertatuko balitz) bigarren ariketan proposatu dakieke zuzenean.
- eta 4 ariketetan problemak irakurri ondoren taldekideen artean aztertuko dira ebazteko prozesua planteatuz. Dinamizatzailleak planteatutakoaren zergaitiak eskatuko ditu, eta azalpena ezberdinak eskatuko ditu guztiek ulertu arte.

Ikaslearen fitxa

1. Zer da disoluzio bat?
2. Erreparatu irudiari eta idatz ezazue zein den solutua zein disolbatzailea eta zein disoluzioa.



3. Eratzun bat egiteko 30g zilar eta 70g urre urtu disolbatu dira. Kalkula ezazue eratzunaren kontzentrazioa ehunekoan masan.
4. Itsaso Hila gatz disolbatu kopuru gehien daukan itsasoa da. Kalkula ezazue itsaso horren kontzentrazioa g/L-tan Itsaso Hilaren litro bi uretan 452g gatz disolbatuta daudela jakinda.

Dinamizatzaileak txandak emango ditu eta ondokoari erreparatuko dio:

- Guztiek ulertzen dutela (honela ez balitz, berdinen arteko laguntza estimulatuko du)
- Ikasle bakoitzak problemak ebaztu ahal dituela, bai adostatutako estrategien bidez, bai beste batzuk erabiliz
- Emaitzetan ados jartzen direla
- Guztiek parte hartu dutela (azalduz, irakurriz, datuak emanez, galdetuz, informazioa osatuz...)

4 Jarduera/ gune 4

IZAKI BIZIDUNEN ANTOLAERA ETA MATERIAL LANDUAK

- Ikasleek galdeketa bat daukate erantzun laburrekoak orokorrean. Banan egingo dute galdera bakoitza. Txandaka ozen irakurriko dute eta denon artean esango dute erantzuna, ez dute hurrengoa egingo guztiek aurrekoa eginda eduki baino lehen.
- Moderatzaileak txandak emango ditu, argudioak eskatu beharrezkoa denean eta guztiek parte hartzen dutela bermatuko du.

Ikasleren fitxa

1. Zeintzuk lau elementu dira ugarienak izaki bizidunen osieran?
2. Zertzuk dira gluzidoak, lipidoak, proteinak eta azido nukleikoa?
3. Erlaziona ezazue bakoitza dagokion funtzioarekin:
 - a. Gure gorputzean metatzen den koipearen parte da, energia erreserba dauka helburutzat.
 - b. Azalaren, ilearen eta azazkalen epidermiaren osagaia da, eta gogorrago eta iragazgaitzago bihurtzen ditu egitura horiek.
 - c. Bizi-funtzioak garatzeko behar duen energiaren hornitzen du organismoa.
 - d. Pertsona bakoitzaren izaera determinatzen duten karaktereen informazioa dauka.
4. Zeramikazko produktuak eta plastikoak material landuak dira. Aipatu material horiekin egindako etxean aurkitu ditzakezun lau tresna.
5. nola birziklatzen dira zeramikazko hondakinak? Eta plastikoak?
6. Izendatu gogoratzen dituzun material berriak

Garrantzitsua:

- 1 ariketan: Guztien partaidetza bultzatzea eritziak eskatuz, ondo dauden ala ez eskatuz. Adostu duten definizioa guztiek idatzi dutela bermatu, idazteko erritmo motela dutenek idatzi ahal izateko beharreko errepikapenak egin, honela idazteko denbora gehiago izango dute.
- Bigarren ariketan, adibideak eman baino lehen glucido, lipido, proteinaren definizioak denon artean osa dezaten eskatu, horrela guztiek adibideak jartzeko aukera gehiago egongo da . Gauza bera egin daiteke 4 ariketan material landuak kontzeptuarekin
- 5 ariketan, gutxien parte hartu duten ikasleei eskatzen denaren azalpena ematera animatu eta adostu eta gero, definizioa osatu eta idatzi. Moderatzaileak idazten dutenaren errepikatzearen eta berriro irakurtzearen ardura hartuko du .

Lehenengo guneko Ikaslearen fitxa

1- Osa itzazue beheko esaldiak eta ondoren (ahoz), Irudian agertzen diren materialak sailkatu zein egoeran dauden kontuan hartuz.

Materia hiru egoeratan agertzen da: egoera..... ,




egoera.....

eta egoera.....



2 Sailka itzazue ondorengo ezaugarriak materiaren hiru egoeretako zeini dagokien taula betez:

Bolumen iraunkorra- forma iraunkorra- forma aldakorra- atomoak eta molekulek espazio osoa betetzen dute- bolumen aldakorra- jariakorrak dira- gogortasuna- zailtasuna- biskositatea- atomo eta molekulak oso kohesionaturik- konprimagarritasuna- beren molekulen kokapen finkoak betetzen dituzte espazioan- hedagarritasuna.

3. Denon artean adostu galdera honen erantzuna:

Substantzia bati beroa emanaz gero zein egoeratik zein egoerara pasatu daiteke. Eta hoztuz gero?

2 guneko ikaslearen fitxa

1. Begira itzazue irudiak eta esan zein den nahaste homogenea eta zein heterogeneoa.



fruitu entsalada

fruitu zukua

2. Nola definitu dezakezue nahaste bakoitza?

3. Erlazionatu argazki bakoitza dagokion banatze teknikarekin:

- a) Dekantazioa
- b) Baheketa
- c) Imantazioa
- d) Iragazketa



Zein motatako substantziak banantzen ditu metodo bakoitzak?

Dekantazioa:


Baheketa:

Imantazioa:

Iragazketa:

3 guneko ikaslearen fitxa

1. Zer da disoluzio bat?
2. Erreparatu irudiari eta idatz ezazue zein den solutua zein disolbatzailea eta zein disoluzioa.



3. Eratzun bat egiteko 30g zilar eta 70g urre urtu disolbatu dira. Kalkula ezazue eratzunaren kontzentrazioa ehunekoa masan.
4. Itsaso Hila gatz disolbatu kopuru gehien daukan itsasoa da. Kalkula ezazue itsaso horren kontzentrazioa g/L-tan Itsaso Hilaren litro bi uretan 452g gatz disolbatuta daudela jakinda.

4 guneko ikaslearen fitxa

1. Zeintzuk lau elementu dira ugarienak izaki bizidunen osaeran?
2. Zertzuk dira gluzidoak, lipidoak, proteinak eta azido nukleikoa?
3. Erlaziona ezazue bakoitza dagokion funtzioarekin:
 - a. Gure gorputzean metatzen den koipearen parte da, energia erreserba dauka helburutzat.
 - b. Azalaren, ilearen eta azazkalen epidermiaren osagaia da, eta gogorrago eta iragazgaitzago bihurtzen ditu egitura horiek.
 - c. Bizi-funtzioak garatzeko behar duen energiaz hornitzen du organismoa.
 - d. Pertsona bakoitzaren izaera determinatzen duten karaktereen informazioa dauka.
4. Zeramikazko produktuak eta plastikoak material landuak dira. Aipatu material horiekin egindako etxean aurkitu ditzakezun lau tresna.
5. Nola birziklatzen dira zeramikazko hondakinak? Eta plastikoak?
6. Izendatu gogoratzen dituzun material berriak

Lantzen diren gaitasunak

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: jarduera hau talde lanean egiteak ikasleek besteen iritziak entzun eta beraiena emateko aukera ematen die, horrela besteen eta beraien ekarpenak balioetsiz eta komunikazioa eta konponbideen bilaketa sustatzen du, bai eta elkarrekin bizitzen eta inor ez baztertzen ere.

Gizarte eta herritartasunerako gaitasuna: ikasleek besteen iritziekin egiazta eta aberasten dute euren iritziak, eta euren eta besteen ekarpenak balioesten eta ekarpen horiekin kritiko izaten ikasten dute.

Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: ingurune fisikoarekiko harremana suspertzen da, eguneroko gertakariak, adibide modura jarrita, eta jakintza zientifikoaren ikuspegitik aztertze behar diren oinarriko kontzeptuak eta printzipioak aplikatzen ikasten dute.

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: ikasleek zientziari buruz irakurri, hitz egin eta entzuten dute, elkarrizketa sortzen da argudioak emanez eta terminologia zientifikoa erabili eta eskuratzen dute.

Ikasten ikasteko gaitasuna: ikasleek informazioa bakarka eta elkarlanean interpretatzen dute eta informazio hori norberarentzako jakintza moduan bihurtu. (tertulia dialogikoan)

Matematikarako gaitasuna: Problema zientifikoak eta matematikoak identifikatzean, planteatzean eta ebaztean eguneroko bizitzako egoera desberdinei aurre egiteko gaitasuna ematen die. Problema ebazterakoan lantzen da, bai eragiketak eginez eta unitate egokiak erabiliz.

LENGUA Y LITERATURA (3 ESO)

- **Contextualización de la sesión**
- **Descripción de la sesión**
 - **Comunicación oral**
Texto expositivo y argumentativo
- **1 actividad**
- **2 actividad**
- **3 actividad**
- **4 actividad**

Contextualización de la sesión

En el área de lengua en tercer curso de la ESO se llevan a cabo diversas propuestas metodológicas orientadas al desarrollo de competencias: tertulias dialógicas, tertulias literarias de clásicos universales y grupos interactivos. En lo que se refiere a materiales, como base se utiliza un libro de texto (Magina 3 – Octaedro), y se complementa con diversos materiales de otros libros (Jerigonza-Octaedro; Anaya; Madrigal). Todos ellos tienen una amplia propuesta de actividades para el desarrollo de competencias. También se utilizan otros materiales elaborados por la profesora del aula. Además el alumnado realiza varios trabajos a lo largo del curso para los que tienen que utilizar diferentes fuentes de información (Internet, entrevistas, semanales...). Para ello se dedican algunas sesiones para el trabajo en grupo, y para el trabajo en el aula de informática.

El trabajo sobre cada unidad del libro de texto se inicia con dos o tres tertulias dialógicas con el objetivo de que entre todas y todos los alumnos y las alumnas se vayan explicando unos a otros lo que han entendido, vayan aclarando dudas y vayan relacionando todo ello con lo aprendido, tanto en lengua como en otras áreas, en cursos anteriores. Una sesión semanal se trabaja en grupos interactivos. Los primeros grupos interactivos que se realizan en cada unidad didáctica tienen el objetivo de profundizar en los temas y conceptos trabajados esa semana. En los siguientes grupos de esa misma unidad se proponen actividades en las que tienen que utilizar las diferentes estrategias aprendidas a lo largo de la unidad didáctica en situaciones comunicativas reales. Como soporte para el diseño de las actividades se utilizan los materiales de los citados libros y otros elaborados por la profesora entre los que se incluyen actividades relacionadas con las otras asignaturas.

Descripción de la sesión

Se trabaja La Comunicación oral
Texto expositivo y argumentativo

La duración de la sesión es de una hora. Se plantean cuatro actividades de 12 minutos cada una. La clase se organiza en cuatro grupos heterogéneos de cinco o seis alumnas y alumnos que van rotando por las cuatro actividades. En cada actividad hay una persona que se encarga de dinamizar la ayuda entre iguales.

Objetivos:

- Expresar y comprender mensajes orales que se intercambian en situaciones comunicativas diversas:
 - Defender las propias ideas utilizando diferente tipos de argumentos:
autoridad, experiencia, información, validez

- Utilizar distintos tipos de textos con intenciones comunicativas
- Producir textos orales adecuados a cada situación de comunicación
- Reflexionar sobre los recursos literarios necesarios para crear diálogo entre el lector y el texto

La sesión que describimos no es la primera sesión que se realiza en grupos interactivos en esta unidad didáctica y las actividades están diseñadas teniendo en cuenta que las tareas que se proponen al alumnado han sido trabajadas previamente. Algunas de las actividades proponen producción escrita. En estos casos en general, en el grupo de alumnas y alumnos se plantea cómo puede desarrollarse la producción que se pide y posteriormente, si no lo han acabado en clase, terminan el escrito en casa.

Actividad 1

PAUTAS DE TRABAJO

- Un alumno o alumna lee el enunciado
- Entre todos y todas recordarán las características propias de la noticia
- Cuando han puesto en común todo lo que saben sobre el tema, cada alumna y alumno escribirá su propia noticia durante **dos minutos**
- Pasados los dos minutos el dinamizador o dinamizadora pedirá que cada uno y cada una vayan leyendo lo que han escrito y el grupo irá decidiendo en cada caso si la noticia reúne las características propias, por qué sí o por qué no y propondrá formas de mejorarla

Ficha del alumnado

La noticia inventada:

Imagina que has sido testigo presencial de un robo y que tienes que contarlo por radio o televisión. Confecciona el texto de tu noticia, sabiendo que dispones de dos minutos como máximo para escribirla y transmitirla. (Hace cada alumna y cada alumno y expone al grupo).

El /La dinamizadora

- Prestará atención al alumnado que pueda tener dificultades para hacer la primera parte de la tarea organizando las ayudas necesarias

- Promover que todos hagan aportaciones o completen las aportaciones de los compañeros y compañeras

Actividad 2

PAUTA DE TRABAJO

- El dinamizador/a pedirá que algún alumno lea el enunciado en voz alta.
- Invitará a dos alumnas del grupo para que realicen durante un minuto una dramatización de la situación que se les pide en el primer ejercicio (Hace poco)
- Una vez terminada la conversación pide al grupo que analice si la conversación responde a las características de la situación, por qué sí o por qué no, y haga las aportaciones que considere adecuadas.
- Una vez terminado la primera situación el dinamizador/a pedirá que dos chicos del grupo dramaticen la segunda conversación (Hace mucho) y propondrá al resto del grupo que analice si e la conversación ha sido adecuada y proponga otras posibilidades.

Ficha del alumnado

1. Dramatizad una conversación espontánea entre dos amigas que se encuentran en la calle y hace mucho tiempo que no se ven.
2. Hecha la dramatización por dos alumnas, todo el grupo comenta qué características de las estudiadas de lengua oral han aparecido en la dramatización.
3. Conversación espontánea entre dos amigos que se encuentran en la calle, hace sólo unos días que no se ven.

Hecha la dramatización por dos alumnas, todo el grupo comenta qué características de las estudiadas de lengua oral han aparecido en la dramatización

Comentad también el vocabulario empleado, la forma de la conversación y qué diferencias veis si es un texto escrito en vez de oral

La persona dinamizadora

Estará atenta a que todos y todas participen animando a las personas que participen menos, moderando las aportaciones y reforzando positivamente todas

ellas y especialmente las que considere oportunas para que todo el grupo las valore.

Actividad 3

Pautas de trabajo

- El dinamizador o dinamizadora leerá en alto el enunciado
- Cada alumna y alumno decidirá los argumentos que utilizará para defender la postura que ha elegido
- Pasados unos cinco minutos, el dinamizador pedirá que cada uno comunique los argumentos que ha pensado
- Una vez oídos todos los argumentos el grupo reflexionará conjuntamente sobre la validez de los argumentos expuestos, si están bien justificados....
- Cada alumna y alumno escribirá las conclusiones a las que ha llegado tras el debate.

Ficha del alumnado

Cada uno de vosotros vais a escribir un texto breve defendiendo una de las siguientes posturas:

- En el segundo ciclo de la ESO (3º-4º) la asistencia a clase debería ser voluntaria.
- En el segundo ciclo de la ESO (3º-4ª) la asistencia a clase debería ser obligatoria.

Leeremos los textos y reflexionaremos sobre la validez de vuestras opiniones, sobre la defensa de vuestras posturas y anotaremos las conclusiones en el cuaderno.

La persona dinamizadora pedirá explicaciones de los argumentos y atenderá a la corrección de su expresión

Actividad 4

Pauta de trabajo

- Cada alumna y alumno leerá en voz baja el texto que se les presenta
- Una vez leído, basándose en este texto entre todos y todas escribirá un cuento


- Juntos decidirán el principio y el final
- Una vez decidido irán acordando los hechos que ocurren en el cuento y la forma en que lo expresarán
- Cada quien irá escribiendo su texto a medida que van acordando

Ficha del alumnado

Tal vez el cuento más breve de la literatura castellana sea éste que recogemos a continuación. Lo ha escrito Augusto Monterroso (Guatemala, 1922), consta de siete palabras y se titula **El dinosaurio**:

Cuando despertó, el dinosaurio todavía estaba allí.

Basándote en él, escribe tú un cuento más largo (unas quince líneas, 150 palabras aproximadamente). Con una condición: el cuento de A. Monterroso debe ser la primera o la última frase del tuyo. En el primer caso, tienes que ampliar el cuento imaginando lo que sucederá después de despertar y encontrarse al dinosaurio; en el segundo caso, habrás de inventar lo que sucedió antes de que se diera esa situación.



EL /la dinamizadora

- Invitará al grupo para que propongan ideas, frases
- Impulsará que el grupo vaya completando y enriqueciendo el texto con cada idea que va saliendo
- Finalmente, si no lo hubiesen terminado, pedirá que lo terminen en casa siguiendo las ideas que han salido